

ERAIKUNE-EUSKADIKO ERAIKUNTZAREN KLUSTERRA

Sozietatearen izena

"Eraikune" Asociación Cluster de la Construcción de Euskadi

IFK

G95611596

Izaera

Elkartea.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

2010eko maiatzaren 20an eratu zen entitatea, irabazi-asmorik gabeko elkarte gisa, eta azaroaren 5ean inskribatu zen Elkartearen Erregistroan, [2011ko maiatzaren 10eko EBAZPENEAN, Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen zuzendariak, joan den azaroan Elkartearen Erroldan egin diren inskripzioak eta bestelako oharrak argitaratzeko emandakoan](#), jasota dagoen bezala.

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.
Enplegua eta Gizarte Politikak.

EJSN

8299 Beste inon sailkatu gabeko enpresen laguntzarako beste jarduera batzuk.

Helburua eta xedeak

Entitatearen helburuak dira, beste batzuen artean:

- Euskadiko Eraikuntza Sektorearen lehiakortasuna garatzeko eta hobetzeko beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen diren ekintzak egitea.
- Erakuntza Sektoreari merkatu berrietan sartzeko bideak irekitzen laguntzea.
- Sektorean I+G+B sustatzea.
- Bazkideei ahalik eta informazio zabalena ematea, joera berriak, albisteak, estatistikak, txostenak eta interesgarritzat jo litekeen bestelako informazio oro ezagut ditzaten.
- Topagune izatea bazkideen artean etengabeko elkarrizketa errazteko, enpresen arteko lankidetzak bultzatzeko eta parte hartzeko espazioak sortzeko ezarritako estrategiak lantzeko eta bultzatzeko.

Sailkapena kontabilitate nazionalean

Sozietate ez-finantzarioak: pribatuak.

Sozietatearen Funtsa

79.500 €

Bazkideak

Energiaren klusterra osatzen dute [60 bazkidek](#), eta gainera EAEko Administrazio Orokorreko Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak eta Enplegu eta Gizarte Politika Sailak, ohorezko bazkide gisa:

SPRILUR

VIIESA

EHU

59 entitate pribatu

Bazkideen Batzar Orokorra da elkartearen organo gorena. Batzarrerako deialdiari erantzunez, bertara joaten diren bazkide guztiek osatzen dute Batzar Orokor bakoitza.

2013ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	127.379 €
Ondare garbia	3.779 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	134.900 €
Batez besteko langile-kopurua	2

Sozietatearen helbidea

Ribera de Axpe, 11, C1 eraikina - 23 solairua. 201 dep., 48950 Erandio (Bizkaia).

Webgunea

www.eraikune.com